

## gaurko filmak → ..... Ane Muñoz

## Welles, Macbeth eta Shakespeare bat eginik

■ **MACBETH.** Orson Welles handiaren lan berezi hau gomendatuz hasi nahi dut gaurko filmen komentarioa. Berandu samar eskainiko du La2ek, baina gauza-leek gustura ikusiko duzue oheratu aurretik. Welles paregabeak, hain gustuko zuen Shakespeareren lanean lehen aldiz oinarrituz, *Macbeth* klasikoa ederki zinemaratu zuen, pelikula fina lortuz. Jatorrizko testua errespetatu zuen, nahiz eta pertsonaia nagusiari eta istorioari berari ere ikuspuntu

■ **EL PUENTE DE REMAGEN.** Gizonezko aktore ospetsuek protagonizaturiko melodrama beliko zahartxo hau, aurreko astean ikus ahal izan genuen Frantziako Telebistan. II. Mundu Gerraren garaian kokatua, soldadu amerikarrak eta alemaniarrek nahasten dituen akzioz josiriko abentura txikia da; nahikoa entretenigarria gertatzen da egun ere. George Segal Kapitainak eta Ben Gazzarak, Robert Vaughnekin batera, etsaien erasoak jasango dituzte Ludendorff zubia- ren inguruan. Elmer Bernsteinek egin zion soinu banda, John Guillerminek besterik gabe zuzen filmatu zuen kolorezko filmehoni. ♦

■ **LOS CLARINES DEL MIEDO.** Zezenketak eta toreroen bizitzari buruzko kontuak atsegin dituenarentzat, ezin eskaintza aproposagoa prestatu du La2 kateak goizerako. *Filigranas* toreroa eta *Acetituno* bere laguntzailea ezagutuko ditugu lehenik. Mantxako herriska batean zezenketa garrantzitsu bat ospatzera doaz, eta hortxe azalduko zaizkigu aipatu titudan protagonistak, bertan parte hartzeko asmoz. Francisco Rabalek betetzen du pertsonaia nagusietako baten rola. Zaharkitua geratu zaio Román zuzendariari, egia esanda. ♦

■ **UN ASUNTO DE CONVENIENCIA.** Europar elkarrekoizpen eskas hau ikusteko ez duzuela esfortzu handirik egin beharrik abisatu nahi dizuet alde aurretik. Zuzenean pantaila txikian igortzeko errealizatu zuen Lewin zuzendari britainiarra, eta ezin dut esan gehiegi luzitu zenik. Jean-Pierre Cassel frantziarrak du rol nagusia, eta konbentzientziatzko ezkontza horietako egitekotan dabilen gazte desesperatuarena egiten du bertan, hain zuzen. Tira, erraz ikusten da behintzat. ♦

■ **AMORES QUE MATAN.** Goiko lerroetan komentatu dudana *Un asunto de conveniencia* arruntean rol nagusia duen Cassel ak-

torioari eta istorioari berari ere ikuspuntu pertsonaletik azalduko hainbat elementu gehitu dizkion, azken finean oso lan pertsonala eginez. Eszeneratzea bikaina da, maisuaren filme guztietan bezain zaindua. Berak egiten du pertsonaia nagusiarena, eta beste aktoreen artean, Roddy McDowall ezaguna deitu zuen zuri-beltzeko filme honetan parte hartzeko. Interpretazioak eta mugimendu guztiak ere oso ongi neurtu zituen kamera martxan jarri aurretik. Jatorrizko bertsioan ikus dezakegu gaur. ♦

08:50-C+(f)	<b>LES GRIFFES DU LION</b> 1972, R. Attenborough, 120 m.	**
09:55-ETB2	<b>COMO SE HACE UN ESPIA</b> C. Allen / Bill Bixby, 98 m.	**
11:00-La2	<b>LOS CLARINES DEL MIEDO</b> 1958, Antonio Román, 78 m.	**
15:55-ETB2	<b>DUERMETE HIJA MIA</b> 1990, Waris Hussein, 111 m.	**
16:00-T5	<b>CRIMEN PREMEDITADO</b> 1994, Jon Purdy, 90 m.	**
16:00-A3	<b>CORAZON HERIDO</b> 1995, Vic Sarin, 89 m.	**
21:35-T5	<b>MENTIRAS OCULTAS</b> 1996, Peter Kwitt, 88 m.	**
22:00-C+(e)	<b>AMORES QUE MATAN</b> 1996, J.M. Chumilla, 88 m.	**
22:30-TVE1	<b>EL PACIFICADOR</b> 1990, Kevin S. Tenney, 87 m.	**
22:30-La2	<b>EL BANQUETE DE BODA</b> 1993, Ang Lee, 103 m.	**
00:30-ETB2	<b>EL PUENTE DE REMAGEN</b> 1969, John Guillermin, 124 m.	**
01:00-La2	<b>MACBETH</b> 1948, Orson Welles, 103 m.	**
02:00-A3	<b>UN ASUNTO DE CONVENIENCIA</b> 1987, Ben Lewin, 91 m.	**
05:30-A3	<b>EL GRAN GOLPE DE JESSE JAMES</b> 1953, Reginald Le Borg, 71 m.	**

TXARRA ESKASA BALEKOA ONA BIKAINA



El banquete de boda filmea.

toreak jarraitzailek badu, gaurkoa bai egun polita, interpretatzaile horren presentzia bikoitza baita pantaila txikian. Chumillak zuzenduriko komedia txiki eta baztergarri honetan ere azaltzen da, baina oraingoan ez du berak protagonistarena egiten. Hain zuzen Carmen Maurak eta Puigcorbék dituzte rol nagusiak umorezko tonua nagusi duen abenturan. Consuelok auzoko gazte susmagarriarekin abentura sentimental bat bizi zela amesten du. Arina da, besterik gabe ikusten da. ♦

■ **EL BANQUETE DE BODA.** Azken urteetan Estatu Batuetan kokatu den Ang Lee (*Comer, beber, amar*, 1995)

zinemagile taiwandarrak aho zabalik utzi gintuen La2ek gaurerako prestatu duen filme goxo eta hunkigarri honekin. Hainbat kulturetako jendea elkartzean sortzen diren hainbat egoera berezi eta etengabeko gaizki ulertzeak umorez erakusten ditu. Txinatar gazte homosexual batek, gurasoak kontent uzteko, gezurretazko andregai bilatu eta harekin egun batez besterik ez bada ere ezkontzea erabaki du. Errealismo handiz traturiko gaia, bestalde elkarriketa eta egoera gozagarriz apainduta aurkezten du zinemagile interresgarriak. Oso atsegin eta gomendagarria duzue. ♦



07:30 Aurkezpena.

07:30 Superbat.

- Doracemon, katu kosmikoa.
- Mamu harrapariak.
- Dommel.

08:45 Goenkale.

09:25 Txiskola.

10:25 Aire, Aire.

11:40 Eurokontsumitzaileak.

11:45 Ikusgela. Koro Lasartek aurkezten duen hezkuntz saioa.

12:45 Iparraldearen orena.

12:55 Bertatik bertara.

13:30 Gaur Egun.

14:20 Kili Kolo. Lehiaketa.

14:50 Goenkale.

15:25 Bertatik Bertara.

16:00 Madison. Telesaila: 'Diru premia'.

16:45 Lan bikaina! Dokumentala: 'Miniaturazko trenen fabrikatzaileak'.

17:05 Di-Da. Bideoklip saioa.

17:20 Hitzaro.

17:55 Iparraldearen orena.

18:05 Superbat.

- Sylvan.
- Ginger Gerriko Beltza.
- Marrakzi bizidun klasi-koak.
- Vicky Bikingoa.
- Pottokiak.

20:05 Euskaraokea.

20:30 Gaur egun. Albistegia.

20:55 ETB kirolak.

21:10 Dragoi Bola.

21:35 Goenkale. Telesaila: 'Suerte txarreko eguna'.

22:15 Jaun ta jabe. Telesaila.

23:20 Ai ene! Smith eta Jones. Umorezko saioa.

23:50 Bertatik bertara. Andoni Aizpuru aurkezlearen eskutik hurbileko gaiak aztertzen dituen saioa.

00:25 Berriketa gutxi. Miel Anjel Elustondok Joseba Zulaika elkarriketatuko du.

01:00 Madison. Errepikapena.

01:25 Kili Kolo. Errepikapena.

01:55 Ikusgela. Errepikapena.

02:55 Lan bikaina! Errepikapena.

03:15 Amaiera.

ETB 2

TVE 1

08:20 Azimuts.  
08:50 Del país de los vascos. El chocolate.  
09:25 Europa-Europa.  
09:55 Zinea.  
*Como se hace un espía.* Zuzendaria: Corey Allen eta Bill Bixby.  
11:35 Euroconsumidores.  
11:40 Forum. David Barberok Teresa del Valle elkarriketatuko du.  
12:10 Animales depredadores.  
12:40 A mediodía.  
13:10 La cocina de...  
13:30 ETB Kirolak.

06:00 Euronews.  
07:30 Telediario matinal.  
09:10 Los desayunos de Radio Nacional.  
Gonbidatua: Rafael Ribot, Iniciativa Per Catalunyako lehendakaria.  
10:00 La dueña.  
12:15 Saber vivir.  
13:05 Así son las cosas.  
13:30 Zip Zap.  
13:55 Noticias.

14:00 Lo que faltaba.  
14:30 Teleberri. Albistegia.  
15:30 Roseanne. Umorezko telesaila. *Lánzate a la carretera.* Jack.  
15:55 Cine 2.  
*Duermete hija mía.* Zuzendaria: Waris Hussein. Aktoreak: Gary Cole, Scott Grimes eta Diana Pappas. 1990.  
17:50 Protección especial. Telesaila. *Mama ha vuelto.*  
18:40 Cinco en familia. Telesaila. *Analogías.*

14:00 Informativo territorial.  
15:00 Telediario 1. Albistegia.  
15:54 El tiempo. Eguraldi iragarpena.  
16:00 Todo por tu amor.  
17:40 Vaya lío.

19:25 Medias de seda. Telesaila. *El sueño eterno.*  
20:20 Rompecabezas.  
20:58 Teleberri. Albistegia.  
21:45 El tiempo lo dirá. Eztabaida saioa. *Verdades y mentiras de lo oculto.*

19:00 Noticias.  
19:05 Hercules: sus viajes legendarios. Telesaila. *Los muertos desparecidos.*  
20:00 Fútbol. Erreko-pako finala: *Barcelona - Paris Saint Germain (20:30).*  
22:30 Especial cine. *El pacificador.* Zuzendaria: Kevin S. Tenney. Aktoreak: Robert Forster, Lance Edwards eta Hillary Shepard. EEBB. 1990.

00:30 Cine 2.  
*El puente de Remagen.* Zuzendaria: John Guillermin. Aktoreak: George Segal, Robert Vaughn eta Ben Gazzara. EEBB. 1969.  
II. Mundu Gerraren amaieran, estatubatuarrek alemaniarren aurka borrokatzen ari dira Rihn ibaiko zubi bat babesteko.  
02:30 A mediodía.  
03:00 Forum.  
03:30 Empresa vasca.  
04:05 Amaiera.

00:30 Dossier.  
01:15 Telediario 3. Albistegia.  
02:00 Se ha escrito un crimen. Telesaila. *La clase.*  
02:45 La mujer de tu vida. Telesaila. *La mujer perdida.*  
03:45 Telediario 4.  
04:15 El jinete de los ojos verdes.

CANAL + (e)

07:25 ABC world news. 07:45 Plusvalia. 07:52 Redacción. 08:00 Programa más o menos multiplicado o dividido. 08:55 Redacción. 09:00 Telesaila: Al senador ni caso. 09:52 Redacción. 10:00 Zinema: La ceremonia. 11:48 Zinema: Cautivos. 13:30 Los 40 principales. 14:00 Telesaila: Padres forzosos. 14:30 Redacción. 14:35 Más deporte. 15:30 Zinema: Alerta máxima 2. 17:06 Zinema: Adios tiburón. 18:30 Previo toros. 19:00 Zezenketa: San Isidro feria. 21:30 Redacción. 21:53 Contrarreloj. 22:00 Estreno Canal +: Amores que matan. 23:31 Zinema: Sin palabras. 01:07 Zinema: Entre dos mares-II. 02:35 Zinema: Hotel y domicilio. 04:08 Zinema: Panther. 06:08 Dokumentala: El lado oscuro de Howard Hughes. 06:59 Detras de la cámara.

Canal + (f)

07:00 ABC News. 07:20 Le journal de l'emploi. 07:25 Cyberflash. 07:35 Le dessin animé. 08:05 Jean Seberg, portrait d'une actrice. 08:50 Zinema: Les griffes du lion. 10:55 Flash info. 11:00 Zinema: Max zéro malgré Luis. 12:30 Le journal de la nuit. 12:55 La grande famille. 14:00 Le journal de l'emploi. 14:05 Décode pas Bunny. 15:00 Blake et mortimer. 15:45 L'homme de nulle part. 16:30 Basket américain. 17:45 Le dessin animé. 18:15 Cyberflash. albistegia 18:30 Nulle part ailleurs. 20:30 Le journal du cinéma. 21:00 Zinema: Dolores claiborne. 23:05 Flash info. albistegia 23:10 Gu'en pensez-vous? 23:25 A part ça... Mathieu Kassovitz. 01:15 Zinema: MASH. filmea 03:10 Amaiera.